

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERABEITIKO UDALA

Estaturako gaikuntza dute toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako Erriberabeitiako Udaleko idazki-kontuhartzaile lanpostua betetzea

Kontuan hartu behar da idazkari-kontuhartzailearen lanpostura bete beharko dela, titularra-ren aldi baterako lanerako ezintasunagatiko bajaren ondorioz.

Estatutarako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak hartu ditur kontuan, eta hau

EBATZI DUT

Lehenengoa. Prozedura abiaraztea Arabako Foru Aldundiari proposatzeko izenda dezala es-taturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bar Erriberabeitiako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, 128/2018 Errege Dekretuak 49., 50. eta 51. artikuluetan ja-sotako moduetakoren batean eta adierazten duten lehentasunaren arabera.

Bigarrena. Bost egun balioduneko epea hastea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik, bete beharreko laposturako hautagaiek parte hartze eskaerak aurkezteko, eranskin gisa doan ereduan eta adierazten diren agiriak erantsita.

Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, eta lehen-tasuna izango dute lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiek.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen Eusko Jaurlaritzak argitaratutako merezimien-duen azken baremo orokorraren arabera ezarriko da lehentasuna egoera bakoitzean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da idazkia.

Hirugarrena. Hautagaien lehentasun ordena ezarri ondoren, eta Erriberabeitiako udalak izendapena hurrenkera horren arabera egitearen aldeko txostena eman ondoren, hautagai bakoitzari eskatuko zaio aurkez dezala destino duen toki erakundearen aldeko txostena eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak, hamar egun balioduneko epean eta aipatutako artikuluen arabera.

Laugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du Estatutarako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52. eta 53. artikuluetan xedatutako prozedurak.

Bosgarrena. Udabatzari ebazpen honen berri ematea egiten duen hurrengo bilkuran.

Seigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak.

Izena: idazkari-kontuhartzailea.

Lan harremana: estatutarako gaikuntza duen funtzionarioa.

Eskala: estatutarako gaikuntza.

Taldea: A1.

Destino-osagarria: 28.

Berriazko osagarria: 28.398,16 euro.

Hizkintza ezkakizuna: 2; derrigortasun datarik gabe.

Ribabellosa, 2025eko irailaren 11

Alkatea

AMADO MARTÍNEZ DE ITURRATE CUARTANGO

ERANSKINA

Nik jaunak/andreak, NANA:, jakinarazpenetarako helbidea:, herria:, telefono zenbakia, Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa: azpieskalakoa; gaur egun lanpostuan dihardut,, toki erakundean, (e) k, egindako izandapenaren bidez; lanpostuaaren jabetze data (zerbitzu aktibora itzultzeko egoeran -lankidetzat lanpostuak kentzeagatik / izendapen askeko lanpostua uzteagatik-).

Adierazten dut

Jakin dudala Erriberabeitiako Udaleko idazkari-kontuhartzailea lanpostua hutsik geratuko dela, eta behin-behineko izendapen bidez betetzeko aukera dagoela, zerbitzu eginkizunetan edo zereginen pilaketagatik.

Betetzen ditudala lanpostuari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez, hau

Esketzen dut

Erriberabeitiako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin-behineko izendapen bidez, zertitzu eginkizunetan/zeregin pilaketagatik (esabatu soberan dagoena), betetzeko prozeduran parte hartzea.

Honako hauek esansten ditut:

NANaren fotokopia.

Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.

Lanpostua zereginen pilaketagatik eskatuz gero, zereginen pilaketengatik izendapenik ez dudala adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

....., 2025eko aren(a).

Sinadura: